

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

B1 maila (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua)

AZTERKETA IDATZIA

A eredua

BIZKAIERAZ

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

LANTOKIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak ariketa bi daukaz: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Ariketa bi honeek egiteko **ordubete eta 20 minutu** eukiko dozuz.
- Irakurri eizuz ariketa bakoxtaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoaz egin behar dira. Ahalegindu zaitez letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-mueta: EGIA ala GUZURRA

Zelan egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horren gaineko ariketa bat.
 - Ariketea egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtea gomendatzen deusugu.
 - **Ariketa-orrian** datozan esaldiak egia ala guzurra diran markau behar dozu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dozuz ondo.

BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DANEAN

Eusko Jaurlaritzak, 2004ko bagilean, txakurrak eukiteko baldintzak arautzen dituan dekretua onartu eban, eta Nafarroako Gobernuak antzeko beste dekretu bat, hilebete beranduago. Harrezkero, ia desagertu egin dira kaleetatik Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier eta American Staffordshire Terrier errazetako animaliak. Horreek dira, hain zuzen be, txakur arriskutsuen zerrenda baltzean agiri diran lehenengo hirurak. Adituek dinoenez, halanda be, arriskua ez dago animaliakean, horreen nagusiakan baino.

“Sasoi baten modan egoan Rottweiler moduko txakurrak eukitea, baina gaur ia desagertu egin dira kaleetatik. Ez dira ikusten, ez bada txakur-hezitzaileen eskuetan” esan deusku Jose Tribiño al baitariak. Izan be, Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren dekretuek baldintza zorrotzak ipini ebezan zerrenda baltzeko txakurren jaube izan gura ebenentzat. Esate baterako, txakurra kalera ateraten daben guztietan aldean eroan behar ditue animalien agiriak; beti lotuta eroan behar ditue, eta, derrigorrean, erantzukizun zibileko aseguruia euki behar dabe.

Ez hori bakarrik. Arriskutsuen zerrendan agiri diran 8 errazetako txakurren baten jaube izan gura dauanak, adin nagusikoa izateaz gainera, animalia gobernetako adinako gaitasun fisikoa eta egokitasun psikologikoa badaukala probau beharko dau azterketa psikologikoa gaindituta.

“Gidatzeko baimena lortzeko egin behar danaren antzekoa da”, dino Tribiñok. Arazoa betikoa da bere eretxiz, “arauak jaube arduratsuek bakarrik beteten ditue; ardurabakoek ez”. Daukan esperientziak erakutsi deutso arazoak sortzen dituen txakurren jaubeak izan ohi dirala txakurra lotu barik eta txertoa emon edo txipa ipini barik eroaten dituenak. “Gainera, inoiz harrapetan baditue, txakurra kenduko deusie, gehienez be, eta hareei bost, beste txakur bat lortuko dabe eta”, kritikau dau.

Albaitariak haserratuta dagoz Administrazioak auzia arautzeko erabili dauan prozedureagaz. Aitatutako zerrenda baltza be zentzubakoa dala iruditzen jako Tribiñori, erispide zientifiko barik egina dala: “Animaliak ez dira erasotzaileagoak errazearen arabera, txakurra bera, dana dalako errazoia gaitik, erasotzailea dalako baino”.

Eretxi berekoak dira Atea animalien aldeko alkartekoak. Ez dira erraza bereko txakur guztiak zaku berean sartzearen aldekoak. “Horri, personakaz egiten danean, errazakeria edo sexismoa deitzen jako”, dino Ateako kide batek. Arazoa bere eretxiz, personakan dago. Rottweiler txakurrak ipini ditu adibide: “Txakur honeek gai dira ezelako arazo barik personakaz biziteko. Arazoa da handiak eta indartsuak diranez, eraso egiten erakusten deutseela”.

Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan txakur guztiak, sortzetik, tatuau egin behar dira, eta egin leikiezan kalteak babestuko dituan aseguru hartu behar dau jaubeak. Gainera, txakurrak kalera ateraten dituenan, musturrekoa eta ugala ipini behar deutseez.

Hango legeak txakur-mueta bi bereizten dauz. Lehenengo mailan Pit Bull errazako txakurra dago. Txakur-mueta desbardinaren arteko kurutzatzearen emaitzea dira eta erasorako joera naturala daukie. Frantziako Gobernuak horreek desagerrarazoteko erabagia hartu eban 1999an. Jaubeak, geroztik, behartuta dagoz txakurrak antzutzen, eta arau zorrotzak bete behar ditue. Bigarren mailan Bull Terrier eta antzeko txakur-errazak dagoz. Horreek be arauak bete behar ditue, baina ez dagoz antzutzeko agindupean.

I. Bilbao / A. Renteria
Berria, 2005-02-03
Egokitua

1.1. ARIKETA-ORRIA

EGIA ala GUZURRA?

1. Tribiñoren eretziz, arauak beteten ez dituan jaubeari txakurra kendu leikioe, baina, jaubeak gura izan ezker, beste bat eskuratu leike.
2. Txakur-hezitzaileek Rottweiler txakurrak gurago ditue beste errazetakoak baino.
3. Dakien eretziz, arriskua txakur arriskutsuen jaubeakan dago, animaliak baino gehiago.
4. Iparraldeko probintzietan txakur guztiak lotuta atera behar dira beti.
5. Nafarroako Gobernuaren dekretua Eusko Jaurlaritzarena baino lehenagokoa da.
6. Erraza bereko txakur guztiak bardintzat hartzea "errazakeria" da, Atea alkarteko kide baten eretziz.
7. Tribiñok dinoanez, txakur arriskutsuen zerrendea osotzeko, erispide zientifiko huts-hutsak erabili dira.
8. Rottweiler errazako txakurrek arazo larriak sortzen ditue, personakaz bizi ezker.
9. Frantziako Gobernuak Pit Bull txakurrak desagertzea gura dau.
10. Zerrenda baltzeko txakur-mueta batzuk nekez ikusi leitekez gure kaleetan.
11. Gidatzeko baimena ateratea baino gatxagoa da txakur arriskutsu batez jaubetzea.
12. Txakur arriskutsuaren jaubeak adin nagusikoa izan behar dau eta proba psikologikoa gaindituta euki behar dau.

2. IDAZMENA

Egitekoa: TESTU LABURRA IDAZTEA

Zelan egin:

- Gitxienez 90 berba idatzi behar dozuz.
- Ahalegindu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoaz idatzi behar dozu.

GAIA: Orain dala gitxi arte ospitalizauta egon zara. Gaur gutun bat hartu dozu handik. Eskaini eutsuen zerbitzuaren gainean zer eretxi dozun jakin gura dabe.

Ospitaleko arretean, orokorrean, ezin hobea iruditu jatzu, baina gelen neurriaz, zarateaz eta bisitari-kopuruaz badaukazu zer esana. Azaldu zure eretxia.

Oharra: Testua 11. orrialdean idatzi behar dozu. Zirriborroa egiteko, 10. orrialdea erabili zeinke, baina 11. orrialdekoa bakarrik zuzenduko da.

ORRIALDE HONETAN IDATZITAKOA EZ DA ZUZENDUKO

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredua

Irakurgaia: "BENETAKO ARRISKUA HANKA BIKOA DENEAN"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

A eredua

1	E	7	G
2	G	8	G
3	E	9	E
4	E	10	E
5	G	11	G
6	E	12	E